

## LOTU HITZAK BEREN SINONIMO EDO DEFINIZIOEKIN

- |                 |                                                                 |
|-----------------|-----------------------------------------------------------------|
| 0. omen         | ( ) soinu                                                       |
| 1. artalde      | ( ) ardiak zaintzen dituen pertsona                             |
| 2. artzain      | ( ) hurrengo egunean                                            |
| 3. kopeta       | ( ) ezertarako balio ez duen esfortzua, “inutilmente”, en vano” |
| 4. burruntzia   | ( ) kontatzen dutenaren arabera, “según dicen”                  |
| 5. alferrik     | ( ) konturatu                                                   |
| 6. biharamunean | ( ) bekokia                                                     |
| 7. jabetu       | ( ) ardi taldea                                                 |
| 8. hots         | ( ) burdinazko makila; animaliak sutan erretzeko erabiltzen da  |

## TARTALO ETA BI ANAIEN KONDAIRA

Gipuzkoan, Zegama herriko baserriko bi anaia mendira irten **omen** ziren behin, ehizatzeke asmoz. Trumoiak hasi omen ziren, eta korrika hasi omen ziren babes bila. Txabola handi bat ikusi eta bertan sartzea erabaki zuten.

Ondoren, **artalde** bat sartu zen txabolan, eta haren ondoren, **artzaina**. Gizon handia zen artzaina, eta begi bakarra zuen **kopetan**.

Tartalo zen. Tartalok anaiak ikusi zituenean, honela esan zion zaharrenari: “Zu, gaurko”. Eta gazteenari: “Zu, biharko”.

Ondoren zaharrenaren gorputza **burruntzian** sartu, erre eta jan egin zuen. Haren ondoren, lurlean etzan eta lo gelditu omen zen. Anaia gazteak hori ikusirik, burruntzia hartu, sutan berotu eta Tartaloren begian sartu omen zuen. Tartalo erabat itsuturik eta minduta, **itsumustuan** aritu zen gaztearen bila baina **alferrik**, ardi eta larru artean zegoen ezkutatuta gaztea.

**Biharamunean**, txabolako atea zabaldtu zuen Tartalok. Ardiei beren izenez deitu eta banan banan atera zituen txabolatik. Gaztea, arto larruaz estalia, Tartaloren hanka artetik igaro zen eta txabolatik ihes egitea lortu zuen. Tartalo berehala **jabetu** zen gertatutakoaz, eta haren atzetik abiatu zen, haren urratsen **hotsei** jarraituz. Gaztea erreka batera iritsi eta igeri zeharkatu zuen; Tartalo ere uretan sartu zen, baina, ez zekienez igeri egiten, ito egin zen.

